

JONDONIONE-SUAK ETA BESTE OIKUNDEAK *

Jondonione edota Donibane. Santu onen jaiak oroigarri asko dakar geienontzat.

Euskalerrian ba-ditugu ainitz sinismen eta oikunde egun orri eta bere santuari buruz.

Eguzkiak; suak, urak eta iturriak; zenbat zuaitz, lora, belar eta zuamuxkak; mendiak eta elizaino askok ba-dute zerikusi Donibane-jaiakin.

Eguzkia. Donibanez, dantzari sortzen dala eta ori ikusi legikeala Nabarrizko Maruelexa'tik, baita Gorbeiatik eta Aizkorritik ere, entzun izan degu.

Eguzkilora (Carlina acaulis) omen da bere iduria eta erri batzuetan etxeko ate-larrian jartzen dute, oneztarria eta beste gau-ireluak sar ez ditezen (Mendiola, Ataun).

Sua ere eguzkiaren iruditzat daukate ainitz tokitan. Orregatik, Donibanez eguzkia bere gainaldian baitago, askok gau ortan suak piztu oi dituzte etxeatarian edota bidegurutzetan. Eta etxekoak eta auzokoak suaren gainetik jauzika dabilta «ona barnera, gaixtoa kanpoat» deadarka. Baita bere inguruan biraka lerroan ibili oi dira, sua eskubi-aldeetik dutela, errosarioa esanaz (Sara). Baita ere laskoeskumen edo illati bat, su ortan piztua, daramate soro edo landetara, pixti eta sorgiñak uxatzeko, auek uzta galdu ez dezaten (Oyartzun, Larrabetzua).

Su onen keaz usantzen dute etxea; bertan bizi diranak gaitzik gabe urte guztian gorde ditzan (Baztan, Arakil).

Ba-ditugu iturriak ere Donibanez eragite eta doai berezia dutenak; Yantziko San Juan Iturri, Ziordia'ko urbedeinkatua, Anozibar'go Aingeruiturri, Beorburu'ko Saniturri, Betelu'ko Iturri-santu, Aralar'go Doniturrieta, Andatzarra-te'ko Iturriotz, e.a.

Donibane aurreko gauean batez ere, urak eragite ona dutelazko ustea oso edatua dabil Euskalerrian. Orregatik garai ortan oiñak intzetan, oiñetako gabe, erabiltzen dituzte askok; baita soiñua errekan edo iturrian garbitu eta beratu oi dute, ustez eta ez dutela urte guztian gaitzik izango edo zenbait gaitzetatik sendatuak izanen dirala (Arratia, Beasain, Liginaga).

Zenbait lekutan (Dohosti'n eta Liginaga'n) etxeko urak kanpoat jaurtiki oi dituzte eta ur-berria iturritik ekarri.

Zuaitzak (aritz, lizar, ereiñotz, urritz, intxaur eta intxusak) egun ortan ba-dituzte, uste danez, indar bereziak. Era askotan erabiliak dira gure errietan, bai gaitzak sendatzeko edo uxatzeko, baita etxeak, erriak eta landak gerizpetzeko ere (Yantzi, Bera, Oyartzun, Ataun, Zegama, e.a.).

*Sacado del diario *Egin*, jueves 29 de Junio de 1978.

Toki askotako oitura da etendünak aritz pitzatuan erabiltzea, beren gaitzetik senda ditezen. Aritz luze bat enparantzan zutik jarri oi dute erri askotan.

Zuaitz batek alea ekar dezan sagartzeak, esate baterako, arriak ezartzen dizkiote bere lepoan Donibanez. Ala Sara'n, Barkoitze'n, e.a.

Orrelako opariak —arriak, alegia— eskaini oi dizkie toki batzuetan ildako arbasoei (trikuarri edo dolmenetara jaurtikiaz), eta berdin urgeldietako eta arpe edo leizeetako ireluai ere.

Jondonione'ri eskaintzen dizkiote landare eta ale-mota batzuek elizetan: Artoa, garia, gerizak, madariak, ereiñotza, garoa, millua, ezpatak, donibane-lorak eta beste. An bedeinkaerazi eta gero gauza orietako batzuekin —ezpata, millu eta lorakin, batez ere— etxeko ate-aurrea eta ate-alboak bakoitzak apaintzen ditu; baita leioak ere elorritz eta ezpataz. Gainera gauza bedeinkatu oriek etxean gordetzen dituzte, ereiñotza bereziki, odeia eta inusturia eldu diranean, auen ireluak uxarazteko erre oi dituzte.

Sinismen eta oikunde auek denak, mito eta erligiozko arau baten agerpenak dirala esan gentzake. Batez ere, eguzkia jainkotzat izan duan erligioarenak, orain dela lau milla urtez gero indo-europatarren bidez errialde askotara barreatuak. Aspaldidanik noski, India'tik asita, Persia'n, Rusia'n, Germania'n eta Italia'n zear, sartaldeko eremuetaraño edatuak. Auen kutsuak dira Euskalerrian Donibanez dabilzagun oikunde geienak.

Nere azken itz auen adierazgarriak «Norterbuch der Mythologie» (Stuttgart, 1969) eta L. Von Schroeder'en «Arische Religion» izeneko liburuetan ikus legizke. Auxe, esate baterako: Eguzkiaren iduri diran eguzkilara eta swastika, gure artean ain ezagunak, liburu orietan ageri dira sarritan indoeuropatarren jainko-ezaugarritzat; eguzkia Jainkoaren begia dala diote Euskalerriko zenbait tokitan, Indian Varuna'ren begia dala dioten bezala; eguzkia dantzan Donibanez agertzen dalako sinismena, Donibane-suaren inguruan biraka ibiltzea, elorri eta beste zuamuxka eta lore biltzea, e.z., indoeuropatarren sinismen eta oitura bezala ezagunak dira. Euskaldunok ba-ditugu ordea beste oikunde eta sineste asko, naizta aipa ditugunak emen maitaki zainduak iritxi bazaizkigu ere.